Joxe Azurmendi
Idazlea

Hegelen goizeroko otoitzarena

■ Askotan aipatua da Hegelen notatxoa Jenako fragmentoetarik: egunkariaren irakurketa goizero hiritarraren matutien errezoa bezanbat dela. Monje katolikoak edo pastore protestanteak matutiak errezatzen dituzte eguna argitu baino lehentxeago, Brebiarioan, gogo itzartua zerurantz jasotzeko. Jainkoarengan begiak ipinirik sartzen dira horrela egun berrian.

Egunkariaren irakurketa begiak mundura zuzentzeko egiten da noski, eta horregatik «matutien otoitz errealista» esaten zion Hegelek. Monjeak otoitzean legez, Moderniakumeak egunkarian ikusten du, non aurkitzen den oraintxe mundu honetan. Hortaz, bada, ohea nekez hustu eta dutxatu eta gero, kafetxo batekin, munduari begirada bat botatzen diogu, titularren axalgainetik bakarrik bada ere, etxetik presaka atera baino lehen.

Imajinatuko duzue ene kabreoa, ateraino jaitsi arin-arin eta EGUNKARIA ez dagoela ikusten dudanean. «Banatzaile alu horiek mundua gabe utzi naute gaur ere!». (Bart parradan ibiliko ziren). Eta ez da gezurra Hegelek esaten duena, egingo zenuen esperientzia zeuk ere: egunkaria falta zaizun goizean, desorientaturik bezala gelditzen zara, atzo mundua non geratu ote zen oso segura ez bazeunde bezala.

Horregatik, mundua zer dabilen egunkariak esaten digu eta, zeinek esan behar digun mundua zer dabilen, bakoitzak oso ondo aukeratzen dugu. Nik ondo aukeratua daukat nirea. EUSKALDUNON EGUNKARIA da. Honek esaten didanarekin nahikoa orientatua ibiltzen naiz jeneralean, niretzako tamaina samarreko ene mundu ez handiegian. Nik ez dut nahi nire munduak nola ibili behar duen Madrildik edo esan diezadaten. Ez Madrilgo kazeta probintzianoek, ez probintziotako madrildarrek. Beraz, erabakia daukat, niri, neure munduak esango didala, bera nola dabilen.


Beti ez naiz geratzen oso konforme, hori ere bidezkoa da. Moderatua eta guztientzakoa izan behar zuen EGUNKARIAk, denok ados ginen horretan: batzuetan iruditzen zait halere, moderazioaren estremismo horrekin, zozoa geratzen dela. Nik uste dut boterearekin kritikoagoa izatea, tradizio zaharra dela prentsa kontserbazaleenean ere beste edonon Europan, inor eskadalizatu gabe. (Horixe da kontua: hemen ez gaudela beste edonon Europan. Eta ez dugu esango Afrika ofenditzeko ezer, ezta?). Baina, total, huskeriak. Gustora orrikatzen dut politika, kultura. Enteratzen naiz Iparraldea ez dagoela Indotxina urrutian. Ez dut inoiz ikusi gabe pasatzen Irakurleen Gutunak. Beharbada formularekin ez da osoki asmatu, baina nik uste Lau Literatoen txanda-saioa ideia polita zela (ez litzateke abandonatu behar). Lana hasteko, bihotzez eskertzen duzu aurretik Zabaletaren marrazki-poematxo liriko fina eta Zakilixuten filosofia sanoa animoa piska bat jasotzen. Batzuetan egoten da zerbaiten premia.

> Mundua zer dabilen egunkariak esaten digu eta, zeinek esan behar digun mundua zer dabilen, bakoitzak oso ondo aukeratzen dugu. Nik ondo aukeratua daukat nirea. EUSKALDUNON EGUNKARIA da.

EGUNKARIA humanoa da. Txikia eta pobrea, baina humanoa. Zoroastro zoragarri batek horoskoporik zorongoenak egiten dizkigu (beti asmatzen du!). Batere inporta ez zaizkidan euskoamerikanoak bat-batean interesatu egiten zaizkit azken orrian, ez dakit zergatik. Eguraldiaren informazioa bera, non humanoagorik? Ikusi egin behar da udan mutikoa kabreatuta, «berriz ere!» eta «beti bezala!» eguraldi txarra izango omen delako asteburuan. Humanoegia beharbada (Atlantikoan, ezaguna da, inoiz ez dira seguruak eguraldia eta EGUNKARIAren banatzailea) harpidedunen zerbitzua bakarrik da. (Dena dela, EGUNKARIAk eguraldia ezin kanbiatu badu, agian ezbanatzaileak bai?). Eta, beno, humanoa eta, nik telebista gutxi ikusten dut, baina benetan txundigarria iruditzen zait, piper bixi-bixi guztiz partikular horrekin, Ines Intxaustiren txoritxo mokokaria da egunero paregabea. Artista, entseiutxo kritikoan.

Mundu hori dena ekartzen dizu EGUNKARIAk etxera (ekartzen dutenean!). Eta liburu eta diska erreseinak, elkarrizketak, eta hainbat bista gehiago gure mundutxikira zabalik goizero. Salbatore Mitxelenak entzuten zituen kanpaiak, «Talan, talan, matutiak goizan», euskaldunak egun berrira deitzen, eta EGUNKARIA aro berrira. Talan, talan, talan, Brebiario zibil berritua daukagu gaurtik aurrera euskaldunok. ■

LAPhITZA



Iñaki Segurola



SS / NA

Zaharrak berri, Nafarroako basoetan ere. Baso-lanera ibiltzen ziren lehen hemendik hara, eta orain ere gehienak hartaraxe; kalterako ordea: gipuxkume perretxikero antojagarria omen da hango basoen grazia galdu behar duen zomorroa. Baina, ez delarik bideetan lehengo traturik (orain bidean topo egiteak badakigu zer esan nahi duen: hilak honenbeste, zaurituak gehiago), galdez nago ni: zertan ezagutzen ote da baso-lapurra?

Ezjakinean ari naiz apropos, eta ez baneki bezala noiztik hona bihurtu den, konparazio batera, Bortzirietako basoetan oiartzuarra arrotz eta Zarrakaztelu-Karkaxpillokoa etxeko. Hara, jaunak: oinezkoek, mando-gainekoek, bizikletazale ezkirolariek eta trenean zihoazenek bazuten elkarrengana halako zerako zera bat, baina autismoarekin bapo ezkutatu dira bideetako hizpideak eta ezaupideak. Autismoak estutu dizkigu denbora eta bizimodua. Autismoak ekarri du jendeen nongotasun agiri bakarra matrikula izatea. Bai, horixe da giltza: matrikula. Matrikulako letrek (eta ez beste deusek) salatzen dute *arrotz lapurra* Nafarroako basoetan. Matrikulako *SS* horrek bihurtu gaitu, gainera, alde honetako denok donoxtiar kakarin (sic). Matrikulak puztu du, lehenaz gain, pronbintzien gezurra (gezur nazionala, hori bai, komenentzian izaten da: español tonto-tontoak *E*, eusko gidariak *EH*...). Autismopean matrikulak erabakitzen du nongo amaren umeak garen. Hitza bera dago esaten.

Martin Ugalde



Andoaingo Lanbide Heziketa

Lasalleko anaiak Andoainera Errepublika garaian etorri ziren, 1933an. Lanbide Heziketa saila gerrondoan, 1945ean sortu zen. Hau dena, XVIII. mendean Juan Legarra Etxebeste Eguzkitzak gauzatutako fundazio baten ondorio preziatua. Hiru gizaldiko historia hau da nik orain hogei lerrotan adierazi nahi dudana: 1. Juan Legarra, gizon aberatsa, Gipuzkoako Batzar Nagusietan diputatu nagusi izendatu zuten 1724an. 2. Hamaika urte geroago, Andoaingo Irigoien etxean Apeztegi baten asmoko Maiorazgoa sortu zen. 3. Eraiki, egiatan 1911n egin zen Andoaingo Seminario Txikia gaur Lasalle dagoen lekuan, baina 13 urte geroago, 1924an, sute batek suntsitu egin zuen; Seminarioa Saturraranera aldatu zuten, eta hala ere Andoainen 21 ikasleko zentru txiki bat geratu zen. 4. Gure garaian, 1933ko urriaren 17an, On Joaquin Bermejo errektore jaunak bultzatua sortu zen hemen Lasalletarreko Kristau Eskolak deritzana, Jose Maria Iciar buru zela. 5. Honen ondoren dator *Legarra Etxebeste Fundazioaren* lana eta orain ospatzen ari garen *Lasalle Berrospe* izeneko Lanbide Heziketa sailaren mende erdia. Zorionak.